

SUÁREZ MONZÓN, Noemí eta SEVILLA VALLEJO, Santiago (ed.)  
(2021)

*La gestión del conocimiento en el área de educación: experiencias de grupos con impacto social.* Granada. Comares. 123. or. ISBN: 978-84-1369-083-4

Liburu honek goi mailako hezkuntza-erakundeen garapen instituzionala hezkuntza-ikerkuntzaren erdigunean kokatzen du. Aldi berean, eraldaketa gertatu dadin, ezagutzaren kudeaketa ezinbestekotzat jotzen du, eta kudeaketa hori erakunde ezberdinetan nola gauzatzen den azaldu nahi dio irakurleari. Hots, premisa argi bat du liburuak: ezagutza eskuratzea lehen pausua besterik ez da, eta ez du bere baitan baliorik, baldin eta era egokian kudeatzen ez bada.

Idea horri loturik, ezagutzaren kudeaketa esperientzia pertsonal zein kolektiboak era sistematikoan erabiltzeko prozesua dela azaltzen du liburuak. Gainera, ezagutzaren kudeaketa hezkuntza ikerketa-taldeek egiten dutenean, erakundearen baitan aldagetak sortzen direla azpimarratzen du; batez ere jarduera kurrikularren plangintzan, diseinuan, praktikan eta ebaluazioan.

Horregatik, hezkuntza ikerketa-taldeek erakundearen garapenean eta ezagutzaren kudeaketan duten garrantziagatik, liburuak hainbat ikerketa-talderi aukera ematen die haien lan egiteko era, antolaketa eta beste hainbat ezaugarri azaldu ditzaten. Izan ere, liburuak bi helburu nagusi ditu. Alde batetik, ikerketa-taldeen ereduak, estrategiak eta prozedurak bateratu nahi

ditu, irakurleak besteen esperientzietatik ikasi dezan eta bere testuinguruan aldaketak txertatu ditzan. Bestetik, ikerketa-talde bat sortu nahi duen iker-tzaile ororentzat kontsultarako iturri izan nahi du.

Helburu horiek lortzeko, liburua hiru atal nagusitan antolatuta dago. Lehenengo atalak, sarrerak hain zuzen ere, ezagutzaren kudeaketaren nondik norako nagusiak azaltzen ditu. Bertan, liburuaren oinarri epistemologikoa agerian geratzen da, eta liburuak dituen helburuak esplizitatzen dira.

Bigarren atalean, bost ikerketa-taldek (EDO, IkasGura, ISYFDI, LIJ, IEFI) euren berri ematen dute. Informazio hori oso ongi antolatua dago. Izan ere, estilo ezberdinak ikus badaitezke ere, guztiek honako informazio hau eskaintzen dute: taldearen sorrera, antolaketa eta taldeko partaideei buruzko informazioa; ikerketa-lerro nagusiak; parte hartutako proiektuak; finantzazio iturriak, ezagutza sortzeko erabiltzen duten metodologia; ezagutzaren hedapena eta sozializazioa; beste talde eta ikerlariekin dituzten sare eta harremanak; taldearen produkzio zientifikoa; eta taldearen lanak hezkuntza-erakundeetan duen inpaktua. Jarraian, liburuan deskribatzen diren ikerketa-taldeen eta euren ikerketa-lerro nagusien berri ematen da:

- Equipo de desarrollo organizacional (EDO): Erakundeen, eta bereziki hezkuntza erakundeen analisia egin eta hauen garapena bultzatzera bideratutako taldea.
- IkasGura: Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Espazioaren (GMHEE) sorrerak eta Boloniak unibertsitateetan eragindako aldaketak era sistematikoan aztertzeko interesarekin sortutako taldea.
- Innovación en la Selección, Formación y Práctica de los docentes investigadores (ISYFDI): Irakasle-ikertzaileen formakuntza, hezkuntza-inklusioa eta neurodidaktika aztergai nagusi dituen ikerketa-taldea.
- Literatura Infantil y Juvenil (LIJ): Ingelesezko, frantsesezko eta espainolezko haur eta gazte literaturaren analisia egin eta hezkuntzan duen aplikazio didaktikoa aztertzea helburu duen taldea.
- Innovación Educativa para una Formación Integral (IEFI): Hezkuntza-testuinguru askotarikoetan kalitatezko ikaskuntzan eta berrikuntza-prozesuen garapenean eragiten duten aldagaiak identifikatzea helburu nagusizat duen ikerketa-taldea.

Ziurrenik, liburuaren alderdirik aberasgarriena bigarren atalean topatu daiteke. Izan ere, ikerketa taldeen inguruan gehiago jakin nahi duen iker-tzaile orok, talde berri bat sortzeko prozesuan dagoelako edo haren ikerketa taldea berritzeko asmoa duelako, liburu honetan topatu daitezkeen kontakizunetatik ikas dezake. Gainera, taldeen ikerketa-lerroak askotarikoak badira ere, guztiek dituzte ezaugarriak komunean. Esaterako, talde guztiek hartzen dute partaideen aniztasuna balio positibotzat; orokorrean ez dira zurrunegiak izaten erabiltzen dituzten metodologiei dagokienez, eta horrek

ikerketaren beharretara moldatzea ahalbidetzen die; guztiek dituzte talde-tik kanpoko ikerlariekin harreman-sareak sortzeko estrategiak eta guztiek ematen diote garrantzia taldearen lanaren sozializazioari.

Hala ere, ez da bigarren ataletik eskuratu daitekeen baliozko informazio bakarra. Izan ere, atal honetan zehazten dira ikerketa-talde bakoitzak dituen finantzazio-iturriak, eta horiei erreparatuz, irakurleak bere proiektuak aurrera ateratzeko bide ezberdinen berri izan dezake. Era berean, ikerketa-taldeek dituzten balioek, harremantzeko moduek, edo elkarlaguntza-sareak sortu eta mantentzeko jarraitutako prozesuek, pista argigarriak eman diezazkioke hezkuntza-ikerketa jardueretan murgilduta dagoen irakurleari, haren ibilbide profesionalean arrakastaz aurrera egin dezan. Azkenik, hezkuntza-ikerketan murgiltzen hasi berri den ikerlariarentzat ere baliaigarria izan daiteke liburu hau. Hain zuzen ere, unibertsitateko dinamikak nola funtzionatzen duten, ikerlariak taldean nola lan egiten duten eta diziplina ezberdinetako adituak elkarren lana nola aberastu dezaketen ikusi ahal izango baitu liburu hau irakurrita.

Hirugarren atalari dagokionez, luzeraz motzagoa dela eta bigarren atalaren sintesia dela esan daiteke. Hirugarren atalean liburuan irakur daitekeen informazioa alderatzen da, eta horrela begirada azkar batean informaziorik garrantzitsuena topatu dezake irakurleak. Kontuan izanik egileen helburuetako bat liburuak ikerlarien kontsultarako iturri izatea dela, bereziki lagungarria suertatu daiteke azken atal hau.

Beraz, esan liteke liburu hau hezkuntza-ikerketa burutzen duen ikerlari ororentzat dela gomendagarria, ibilbide profesionaleko edozein unetan egonik ere. Alde batetik, argi dago liburuak bere helburua betetzen duela, lagungarri izan baitaiteke ikerketa-talde bat sortu edo biziberritu nahi duen profesionalarentzat, baina baita beste edozein ikerlariarentzat ere. Azken finean, diziplina berean lanean ari diren beste hainbat adituren lan egiteko ideia, balio eta prozedura estrategiko biltzen baitira. Ondorioz, esan liteke, zaila izango dela liburu hau irakurri eta bere ibilbide profesionalean aurrera egiteko gakorik eskuratuko ez duen hezkuntza arloko ikertzailearik topatzea.

*Aitor Mendia-Urrutia<sup>1</sup>*

*Didaktika eta Eskola Antolakuntza saila  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)  
aitor.mendia@ehu.eus*

---

<sup>1</sup> UPV/EHUn ikertzaileak prestatzeko 2019ko kontratazio deialdiak finantzatua.